



PPk Lizartzako Alkatetza kargua hartu du, herritarren protestekin

TENTSIOA ▶ Ertzaintzez eta bizkarzainez inguratuta osatu zuten Udala PPren karguek

ELKARRETARATZEA ▶ Ezker abertzaleak deituta, herritar ugari protesta egin zuten udaletxean ▶ 6

GAZTELU ▶

Gabirondo Gipuzkoako Txapelketako irabazlea

Segalariak ez zuten irabazterik «espero», adina dela eta ▶ 5

ARANTXA ITURBE ▶ KAZETARIA



I. TERRADILLOS

«Albisteari ez dio kentzen garrantzia irribarre batek»

Alegiarrak Rikardo Arregi Sari Nagusia irabazi du ▶ 3



Udalebeko pleno aretoan ordura arte zegoen Ina etakidearen argazkia zaborretara bota eta Espainiako bandera jartzea izan zen Regina Otaola alkate berriaren lehen erabakia; behean Otaola eta Laura Garrido zinegotzia bizkarzain eta ertzainez inguratuta, herria zeharkatzen. A. IMAZ

LEITZA ▶

Gorritarango Egunak iaz baino jende gehiago bildu du ▶ 7

Beharpenak **-%30**

Amane

Emiobea 5 • Billabona • 943 69 68 11

TOLOSA ▶ GIZARTEA

160 txirrindulari igaro dira Dina Bilbaoren bide beretik

Tolosan abiatu eta Ondarroan amaitu zen larunbatean ospatutako Dinamartxa

ERREDAKZIOA

1997an Karibeko uretan desagertu zen Dina Bilbao kirolaria, orduetik, urtero ospatzen da bere omenez Dinamartxa. Hala, joan den larunbatean 163 lagunek hartu zuten parte Tolosatik Ondarroara (Bizkaia) bitartean egindako bizikleta martxan. Ibilbide honek, bera jaiotzen ikusi zuen Bizkaiko herria eta 15 urtez bizileku izan zuen Gipuzkoakoa batzen ditu.

Omenaldi honek, urtero, Ondarroan ospatzen den *Zapato azulekin* bat egiten du. Ohikoa den moduan, harrera beroa egin zitzaion Ondarroako helmugan Dinamartxari. Bizikleta martxa berezi horretako partehartzaile ondarrutarrak 153 izan ziren eta 10 Tolosaldekoak. Tolosatik abiatu ziren denak batera 09:00ak aldera. Hemendik Albizturrenuntz igo ziren. Jarraian, Bidegoianera, eta handik Azpeitia alderako norabidea hartu zuten. Lasturren (Itziar) geldialdia eta hamaiketako egin ostean, azken txanpari ekin zioten. 14:00ak jota heldu ziren 163 txirrindulariak Ondarroara. Irrintzi, bandaren musika eta txalo artean eman zieten ongietorria Nasa kalearen alde bietan zegoen jendeak. Alde zaharreruntz joan ziren txirrindulariak, eta han amaitu ziren Dina Bilbaoren omenez egindako 80 kilometroak.

Arratsaldean, lagunartean,



Ondarroara iristean harrera beroa egin zieten bertan zeudenek. I. U.



Tolosatik Ondarroarako joan ziren. I. URBERUJAGA/LEA ARTIBAIB-MUTRIKUKO HITZA

kirolariaren omenez bere jaioterrian dagoen txokora joan ziren 20 lagun inguru.

Kirola, bizitzaren ardatz

Ondarrutarrak entrenatzeko egiten zuen Tolosatik Ondarroarako bidea. Honenbestez, duela 10 urte, Karibeko uretan desagertu zenean, ibilbide hau egitea erabaki zuten ingurukoek.

Dina 1960ko azken egunean jaio zen Ondarroan, medikuntza ikasketak hasi eta psikologjakoak aukeratu zituen ondoren. Hamabost urtez bizi izan zen Tolosan. Euskarazko klaseak ematen, eski monitore eta piragua irakasle gisa atera zuen bizimodua. Bere kirol ibilbideagatik egin zen ezaguna Euskal Herrian, baina berandu ekin zien lehiaketei, hogeitaz pasata, 80ko hamarkadan gauzak bestelakoak baitziren. Emakumeak ia ez zuten lekurik kirolean, ezta bizitza publikoan oro har. Horregatik aitzindari izan zen Dina, hainbat emakume kirolari gazterentzat erreferentzia. Iraupen eskian eta txirrindularitza eman zituen lehenengo urteak, eta ondoren triatloian aritu zen. Kirola aitzakiatzat hartuta munduko hainbat eskualde ezagutu zituen: Laponia, Groenlandia eta Alaska eskiz, Ipar Amerika eta Eskandinavia bizikletaz... 1997ko San Joan bezperan Karibeko uretan desagertu zen, Iñigo Rossekina batera.

ANOETA ▶

Hil honetan zehar goizez irekiko dute liburutegia

Hil honetan liburutegia goizez bakarrik egongo da irekita, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Bestalde, internet 09:30etik 13:00etara erabili ahal izango dute.

TOLOSA ▶

Tolosa Kupeko balorazio bilera egingo dute bihar

Bihar 19:00etan Tolosa Kupeko balorazio bilera egingo dute. Antolatzaileek dei egiten die aurreko edizioan parte hartu zuten taldeei hara agertzeko.

TOLOSA ▶

EGA prestatzeko ikastaroa, goizez nahiz arratsaldez

Aitzol Udal Euskaltegiak EGA ikastaro trinkoa antolatu du irailerako. Parte hartu ahal izateko izena eman behar da. Ikastaroa goizez edo arratsaldez egiteko aukera dago.

ELDUAIN ▶

39-40 galdu dute Zeberio II-ak eta Ezkurrak

Thermotechnic Txapelketan 39-40 galdu zuten Zeberio II eta Ezkurrak Lizaso eta Urrutiaren aurka. Partidan aurretik joan baziren ere azkenik besteak nagusitu ziren.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetan
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA
943 65 40 37

SHANTI
KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
T O L O S A

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ARANTXA ITURBE ▶ KAZETARIA

«Iribarre batek ez dio albiste bati garrantzia kentzen»

Euskadi Irratiko 'Arratsaldekoa' irratsaioko kazetari alegiarrak jaso du XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sariko Sari Nagusia bere ibilbidearengatik

IÑIGO TERRADILLOS

Arantxa Iturbe (Alegia, 1964) kazetaria da XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sariko Sari Nagusiaren irabazlea. Hain zuzen ere, pasa den larunbatean egin zuten sari banaketa ekitaldia, eta bertan, Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* irratsaioko kazetariak komunikazio umilari eusteko abilezia duela, elkarriketari ukitu hunkigarria ematen diola eta azaldu zuten besteak beste. Alegiarrak, bere aldetik, «oso pozik» jaso zuten bere ibilbidea saritzen duen saria.

Zer esan nahi du zuretzat sari honek?

Irabazlea nintzela esan zidatenean ezin nuen sinetsi ere egin. Oso pozik hartu nuen, gustura. Lanbide honetan prestigio handiena duen saria da, beraz, gustura egoteko moduko kontua dela uste dut. Ni askotan egon naiz kazetaritza zer den eta zer ez den hausnarketak egiten, eta orain sari honekin, asmatu dudala pentsatu behar dut nire lanarekin.

Zer da, beraz, kazetaritza?

Nire lanbidea da, oso aspalditik aukeratu dudana, eta neurrigabe maite dut. Pasioz bizi dut, eta pasio hori transmititzen saiatzen naiz. Gizartearekin konpromiso handia duen lanbidea da. Gure kasuan, entretanimendua lantzen dugu *Arratsaldekoa*-n, politika erabat alde batera utziz. Hartzailearekiko tratua ona, hurbiltasuna, errespetua eta giro ona dira, besteak beste, puntu garrantzitsuenak.

Kazetaritza mota batekin ez zaudela ados ere esan duzu.

Bai. Ez dakit zein norabide duen egun egiten den kazetaritzak, baina uste dut ez zaidala asko gustatzen. Edo agian gizartea da ez zaidana gustatzen, sinestaraizita baitago komunikabideetan agertzen ez dena ez dela existitzen. Ez nago ados komunikabideetan zer atera edo ez atera egiten duten aukeraketarekin; zeri ematen dioten garrantzia gehien ere ez dut gogoko, eta errespeturik gabe gauzak egitearekin ere ez nago



I. TERRADILLOS

KAZETARITZA

«Nire lanbidea da, eta neurrigabe maite dut. Pasioz bizi dut, eta pasio hori transmititzen saiatzen naiz»

ERRESPETUA

«Komunikabideetan errespeturik gabe egiten da lan; guztiak balio duela dirudi, eta horrekin ez nago ados»

IRRATIA

«Batez ere, lankideak eman dizkit, eta noski, lanbidea; goizero lanera pozik etortzea bezalakorik ez dago»

batere ados. Gaur egun, kazetaritzan, guztiak balio duela dirudi, eta horrekin ez nago ados. Audientziekiko dagoen morrontza izan daiteke horrelako kazetaritza egitearen arrazoietako bat.

Zuek horretaz ere arduratzen al zarete?

Guk ez dugu batere morrontzarik, besteak beste euskaraz ari garelako lanean, eta beraz, beste parametro batzuekin egiten dugu lan.

Saria jasotzean lankideak aipatu zenituen.

Urte askoan aritu naiz Tere Irastortzarekin eta Nekane Peñagarikanorekin lanean, 20 urte hain zuzen ere. Ederki ezagutzen dugu elkar, eta horrek asko laguntzen du lanean.

Urte asko daramatzazu mikrofono baten atzean entzuleak entretentzen. Zuri zer eman dizu irratiak?

Batez ere, lankideak eman dizkit irratiak. Horretaz gain, noski, lanbidea eman dit, nire bihotzeko lanbidea. Goizero pozik etortzen naiz lanera, eta hori baino gauza hoberik ez dagoela iruditzen zait. Jende ugari ezagutzeko aukera ere eman dit irratiak, eta hori oso aberasgarria da.

Zuen saioa entzunda ederki igarotzen duzuela eta ondo konpontzen zarete argi dago.

Oso giro ona dugu gure artean, disfrutatu egiten dugu, eta hori ikus arazi nahi diegu entzuleei. Gainera, irribarre batek ez dio gai edo albiste bati garrantzia kentzen, kontrakoa baizik.

Esatari izateaz gain, idazle ere bazara. Ba al duzu zerbaft esku artean?

Ez, oraingoz, ez dut ezer buruan.

JAIKAK ▶

Giltzak gordeta

Herenegun bukatu ziren eskualdeko hainbat herri eta auzotan San Pedro jaiak, balantze onarekin

IMANOL GARCIA

San Pedrok omen ditu zeruko giltzak. Bere omenezko jaiak amaitu ziren herenegun eta jai horiek berriro irekitzeko giltzak, behintzat, datorren urtera arte ez dituzte erabiliko. Areson, Asteasun, Larraitz, Leaburun eta Urkizun sanpedroei herenegun eman zieten amaiera. Amaratzeko jaietan ere igandean egin zituzten azken ekitaldiak.

«Gustura» daude festa batzordekoak Areson festak nola joan diren ikusita. Herenegun kalean aritu ziren eskean eta San Pedro atera zuten prozesioan. Festetan ohi denez, bazkaririk ez zen faltatu.

Asteasun larunbateko parrandak ez zuen eragin berezirik sortu hurrengo egunean eta eguraldiak ez bazuen lagundu ere, jende ugari bildu zen bai goizean frontoian, bai Ibergainen jokaturako herritarren arteko herri kirol probetan ere. Frontoiko norgehiagoketan, eskuz banaka, alebin mailan Gaiza Iruretagoienak Enaitz Rotetari irabazi zion; eskuz binaka helduen mailan, Julen Urruzolak eta Jon Zubeldiak Unai Usandizaga eta Unai Esnola gailendu zituzten; pala txapelketari dagokionez, Patxi Riverak eta Jon Beobidek Joxe ramon Aierza eta Josu Jauregiren aurka irabazi zuten.

Leabururi dagokionez, festa batzordekoak gustura azaldu ziren jaien balantzea egiterakoan eta jendeak parte hartu dutela nabarmendu zuten. Herenegun jende ugari elkartu zen arratsaldean jokatu ziren herri kirolak txapelketetan frontoian. Saioren aurretik herriko dantzariak emanaldia egin zuten. Goizeko Euskal Herriko Toka Txapelketan 30 parte-hartzaile izan ziren, baina ez zuen arratsaldekoen jarraipena izan. Karlos Irastorza (Irun),



Areso. San Pedroren irudia prozesioan atera zuten igandean herriko kaleetatik. UXUE GOIKOETXEA



Leaburu. Herriko dantzari txikiak emanaldia eman zuten herri kirolen txapelketa egin aurretik frontoian. GREGORIO EIZAGIRRE

Juan Mari Ifurrategi (Segura) eta Pedro Mari Mazzisidor (Astigarraga) izan ziren hiru lehenak. Jose Antonio Arreseigoren izen zen herritarren artekoan lehenengoa.

Larraitzen eta Urkizun urteroko giroa izan zen. Larraitzen,

Gipuzkoako Segura Txapelketaz gain trikiti doinuek alaitu zuten auzoa. Urkizun ere musikak izan zuen bere lekua, besteak beste toka eta bolo txapelketekin batera.

Sanpedroak ez baziren ere, Amaratzen ere jai giroa izan da



Asteasu. Herritarren arteko herri kirolak probek ikusmina sortu zuten Ibergainen. JOXE MARI IBARLUZEA



Amarotz. Herritar ugari dantza emanaldian parte hartu zuten azken egunean. JOXE MARI IBARLUZEA

azken egunotan, bertako jaiak egin baitziren. Festa batzordekoak ere gustura azaldu dira balantzea egiterakoan. Egunez jende dezente hartu du parte eta gau ez hainbeste. Herenegun, erromeria, auzokoan bazkaria, arratsaldeko dantza

emanaldia eta sardina-jatea izan ziren nagusi. Bestalde, Fa-txada eta Balkoi Loratuen Lehiaketaren sari banaketa egin zuten. Isi Rajado, Maite Saizar eta Karmele Karrera izan ziren lehen hiru sailkatuak.

hilberria ▶

Idoia Sagarzazu Lanbert

TINKO euskara elkarteko
lankide eta lagunak

Marian, Jaione, Eli eta Amagoia

Eskerrik asko Idoia



DONOSTIA, 2007ko uztailaren 3an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Regina Otaolak (PP) Alkatetza kargua hartu du herritarren protestekin

Herritarrak udaletxe kanpoan elkartu ziren 'Herriaren borondatea errespetatu. Faxistak kanpora' lelopean



PPko Leopoldo Barreda, Antonio Basagoiti, Carlos Iturgaiz, Carmelo Barrio eta Carlos Urquijo. A. IMAZ



Ezker abertzaleak «herriaren borondatea errespetatzea» eskatu zuen udaletxe kanpoan. A. IMAZ



Komunikabide eta ertzain ugari bildu ziren pleno aretoan. Espainiako bandera ere jarri zuten PPkoek. A.I.

ASIER IMAZ

Atzo goizean, udaletxe inguruan bildu ziren herritarren borondatearen aurka, PPren 7 ordezkari Lizartzako Udalbatza osatu zuten, zinegotzi karguak hartu ostean. Ondoren, Regina Otaola babestu zuten Alkatetzarako. Udaleko beste sei zinegotziak berriz, hauek dira: Manuel Michelena, Laura Garrido, Julia Tercero, Miguel Angel Fernandez, Begoña Pereira eta Jose Luis Marcaida. Maiatzeko hauteskundeetan PPK 27 bozka lortu zituen, Espainiako Alderdien Legearen ondorioz legez kanpo geratu zen ANV-EAEk 186 eta boto zuriak berriz 142 izan ziren.

Atzo goizeko lehen orduetan Ertzaintzak Lizartzako udaletxea eta inguruneak hartuak zituen. 09:00ak inguruan agertu zen Regina Otaola eibartarra, alderdikide ezagun batzuk inguruan zituelarik: Carlos Iturgaiz europarlamentaria, Carmelo Barrio, Carlos Urquijo eta Leopoldo Barreda eusko legebiltzarkideak, Maria Jose Usandizaga Gipuzkoako PPren presidentea eta Antonio Basagoiti Bizkaiko PPren presidentea besteak beste. 08:30ean ezker abertzaleak elkarretaratze-ara deitu zuen Udaletxe aurrean. Ikurrinak bertara eramaten ari ziren pertsonen arazoak izan zituzten bertara joaterakoan, Ertzaintzak udaletxe ingurura gerturatzen ez bait zien utzi. Ondoren heldu ziren bizkarzain eta ertzainez inguraturik PPren ordezkariak. Faxistak kanpora eta Otaola Lapurra bezalako oihuak entzun zituzten udaletxera sartzean eta bertatik irteteen. Udal Plenoa, PPren ordezkari, kazetari eta polizia gainezka aurkitzen zen, Herriak aukeratuak gara esanaz Lizartzako ANV-EAEko zerrendakideak barnera sartu zirenean. Ertzainak ilarran jarri ziren. Hauen aurrekaldeak herritarrak eta kazetari batzuk aurkitzen ziren, atzean berriz telebista kamera eta polizia gehiagoren artean, PPren ordezkariak. Izan ere herritarrek zioten bezala, «PPren bo- toak baino polizia gehiago dago gaur Lizartzan».

Otaolaren diskurtsoa «Udal honen osaketa ezin daiteke ulertu indarkeria ekintza bezala, legearen aplikazioaren ondorio bezala baiziki». Egun

onak eman ostean hauek izan ziren Regina Otaolaren lehen hitzak. «Gu izan gara hauteskundeetan zerrenda aurkeztu dugun alderdi demokratiko bakarra. Beste alderdi demokratikoez, euren ekintzerakin, eurentzat Lizartzak irtenbidetik ez duela onartu dute. ETA-Batasunaren totalitarismoaren feudo bat da eta galdutzat eman dute». Joseba Egibarren aurka ere hitz egin zuen lehen mintzaldian, «zaila da ideario terrorista jarraitzen ez duten herritarrek urrats bat aurrera ematea, inork babesten ez baiditu. Askatasuna ukatzen zaien herritarrekin egoten ez du jakin izan». Herriko zerbitzu, garrario, zubien egoera eta azpiegituren egoera hobetzeko irizkiak jasoko dituztela esan zuen ondoren Otaolak. Azkenik ondorengo 4 urteetan, «askatasunaren aldeko benetako ekintza» zabaldu nahi dutela azpimarratu zuen korporazio berriaren izenean.

Regina Otaolaren lehen erabakia, 1998. urtean ertzaintzarekin izandako tiroketa batean hil zen Ina Zeberio etakidearen argazkia zakarrontzira bota eta bere lekuan Espainiako bandera jartzea izan zen. Udaletxe kanpoan dauden herriko preso politikoaren argazkiak eta pankartak kentzeko agindua ere zabaldu zuen Regina Otaolak, «legalidadearekin bat eginez, bandera konstituzionalak ipintzea bakarrik utziko dut».

Ikurrinak balkoietan

Lizartzako ezker abertzaleak atzarako deialdia egin zuen. Alde batetik, balkoietan ikurrinak jartzeko eskaera egin zien herritarrei. Bestalde, 08:30ean udaletxe aurrera agertzeko eskatu zuten, Herriaren borondatea errespetatu. Faxistak kanpora lelopean.

Jose Antonio Mintegi alkate ohia haserre azaldu zen atzoko ekitaldiarekin, «herri borondatea ez dutelako errespetatu». Hala eta guztiz ere «herriaren alde lanean» jarraituko dutela esan zuen Mintegik «azken lau urte hauetan egin dugun bezala». Aurreko legealdian ere ezker abertzalearen zerrenda izan zen bozkatuena Lizartzan, baina hura ere baliogabetu egin zuten Espainiako Alderdien Legea aplikatuaz. Orduan Joseba Egibar (EAI) jarri zen alkate.

LEITZA ▶ GORRIZTARANGO EGUNA

Aurreko urteetan baino jende gehiago bildu da Basa-Kabin

«75 lagun inguru bildu ginen, aspaldi honetako kopururik altuena», dio Telesfora Caballerok, antolatzaileetako batek



Herri kirol saioa 2006. urteko Gorritzarango Egunean. JAIONE ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Igandearen Gorritzarango Eguna ospatu zuten Basa-Kabin eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten: aizkolariak, ahari apustua, umeen jokoa, bertsolariak, txintxurrin txapelketa...

Telesfora Caballero Aiencoa antolatze lanetan ibili da. «Beti bezala eguna mezarekin hasi genuen. Mezan jende pila

bildu zen, auzo horretan hildakoentzat meza ateratzen baita. Aurten 11 izan dira hildakoak, kanpoan bizi direnak kontutan hartuta. Ondoren aizkolariak izan ziren».

Goizak aurrera egin ahala ahari apustua egin zuten eta umeez ere beraien txokoa izan zuten. Bazkalaurtean Lizaso eta Mañukorta bertsolariak bertsoetan aritu ziren. Bazkaldu

ondoren beste saio bat egin zuten, mahaiari bertan.

Aurtengoa jende ugari bildu da bazkaltzera. «75 lagun inguru bildu ginen, aspaldi honetako kopururik altuena. Gero mus txapelketa egin genuen eta Joxe Mari Baraibarrek eta Joxe bere koinatuak irabazi zuten». Bazkaria Basa-Kabin egin zuten eta Caballerok azaldu duenez, «bazkari ederra»

egin zuten. «Oso ongi igaro genuen. Leizatik, Ezkurratik, herriatik eta Gorritzarandik etorri ziren bazkaltzera».

Txintxurrin txapelketa urte ere bere lekua izaten du Gorritzarango Egunean. «Lurrean txanpoi bat jartzen dute, eta marra baten atzetik jarri eta esku baten gainean aurrera zeinek luzeena eraman, horrela da jokoa», dio Caballerok.

Arratsaldean egindako zozketan opari asko banatu zituzten: Islas bainuetxean egonaldi, GPS bat, Kapritxo denak 100 eurotako txartela, esku-hozkailua, Musunzarren bi afari, alkoholimetro bat eta 4 gazta.

Jai eguna Basa-Kabin kanpoan egiten da, baina arratsaldean euria hasi zuenez, festa barruan jarraitu zuen. «Atertu zuenean leihoak ireki genituen. Musika 19:00etan hasi zen Migel Angel Agerralderekin, gaueko 00:00ak arte, eta jendea dantzan ibili zen barruan eta kanpoan, bietan».

Historia

23 urte igaro dira Gorritzarango Eguna lehenengo aldiz ospatu zutenetik. «Lehen ere egiten omen zen, baina gero utzi egin zuten. Ondoren Gorritzarango gazteak berriro antolatu zuten hasi ziren», dio Caballerok. «Gero emakumeak sartu behar zutelako esan zuten, orduan ez baitzen antolaketa lanetan emakumerik ibiltzen. Gu gehienbat kaperako lanetan ibiltzen gara, urte guztian ez baitugu txukuntzen. Loreak jarri eta dena txukuntzen dugu. Umeen jokoa antolatzen ere gu ibiltzen gara».

LEITZA ▶

Barriolak eta Olaizola II.ak beste final bat jokatu dute

ERREDAKZIOA

Buruz Buruko Txapelketako finalean Barriola eta Olaizola II.a aurrez aurre aritu ondoren, Nafarroako Lau T'erdiko finalean lehiatuko dira berriro, igandearen Barriola eta Martinez Irujo norgehiagoka jokatu ari zirela, azkeneko honek partida bertan behera utzi eta gero.

Iberoko pilotariak zaintiratu bat izan zuten eskuineko besoan 7-7 zihoztela, eta 9-8koan aldageletara joan zen. Beste saiakera bat egin zuten arren, finalerdia utzi egin zuten, eta modu honetan Barriola finalerako sailkatu da.

Larunbatean, beraz, egun handia izanen da Leitzako pilotarentzat Labriten, Herri Arterako finala jokatzeko gain, Bengoetxea VI.ak eta Barriolak ere jokatuko baitute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Lurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ PILOTA

Herri Arterako Txapelketako finala jokatu dute Aurrerako pilotariak

Uharte-Pamplonaren aurka lehiatuko dira larunbatean, Labriten

N. GARZIA

Aurrera Pilota Eskolako pilotariak Herri Arterako Txapelketako finala jokatu dute larunbatean Labriten. Joan den larunbatean Lizarraren aurkako 4 norgehiagoketatik 3 irabazi ondoren, finalerako sailkatu ziren leitzarrak.

«Herri txiki batentzat oso garrantzitsua da. Lizarra, Burlata eta Irurtzunen aurka aritu gara, eta garrantzia ikaragarria du lau mailatan herri txikia

izanda finalera iristeak», dio Pakito Sagastibeltzak, Aurrera Pilota Eskolako arduradunak. «Badira urte batzuk ez ginela Herri Arterako Txapelketako finalera iristen».

Lizarrako taldea lehengo urtean Herri Arterako Txapelketako irabazlea izan bazen ere, aurrerako larunbatean leitzarrak gailendu zitzaizkien. «Taldea nahiko orekatuta daukagu aurten, urtero ez da horrela izaten», dio Sagastibeltzak. Hone-la, 4 partidetatik 3 irabazi zituz-

ten. Hasiberriek 18-10 irabazi zuten. «10. tantora arte nahiko borrokatua izan zen norgehiagoka, baina gero erraz irabazi genuen». Haur-kategorian 18-9 irabazi zuten. «Jaunarena jauna eta jabe izan zen». Gazteetan, aldiz, galdu egin zuten, 22-2. «Aurkariek nahi zutena egin zuten», dio Sagastibeltzak. Azkenekoa ere irabazi egin zuten, 22-7ko emaitzarekin. «Olaizabal oso ongi aritu zen eta partidak bikaina egin zuen».

Bestalde, Elgetako Txapelke-



Herri Arterako Txapelketa. HITZA

tan, kadeteen mailan Jaunarenak finala irabazi egin zuten, eta Onsalok, aldiz, bi tantorengatik galdu zuten 23 urtetik beharkekoen mailan.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Alegiako jai batzordeak zikiro jaterako txartelak eskuratzeko epea luzatu du taberna hauetan: Etxeberria, Jubilatuen Taberna, Kafe Letamendia, Iskiña eta Kurpil.

Tolosa. Bihar, Tolosa Kupeko finala eta gero balorazioa egiteko eta aurrera begirakoa antolatzeko bilera egingo dute 19:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Paleta txapelketa gomazko pilotarekin antolatu du Tolosa CFk uztailaren Berazubiko frontoian. Izen-ematea, 20 eurotan bikotea (10 bazkideek) klubeko bulegoan edo 656 719263 telefono zenbakian.

Tolosa. Bihar, Lasturrera paintball egitera irteera antolatu du Gazte Topaguneak. Irteera 15:00etan Triangulotik. Prezioa: 15 euro. Arropa eroso eta eramatea gomendatzen dute.

Tolosa. Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatu du etzi, osteguna, Gazte Topaguneak, 15:20ean Renfeko apeaderotik abiatuta. Prezioa: 4 euro. Informazioa Gazte Topagunean.

Tolosa. Lekuberrira egun osorako irteera antolatu du Gazte Topaguneak ostiralerako: zaldi ibilaldia eta piszina. Prezioa: 15 euro. Irteera 09:00etan Trianguloko bus geltokitik. Arropa eroso, bazkaria, bainujantzia, toalla, eguzki krema... eramatea gomendatzen dute. Informazioa Gazte Topagunean.

Villabona. Biltoki jubilatutako elkarrekin irteera antolatu du Harora uztailaren 10erako. Argantzon eta Gasteiz ere bisitatuko dituzte. Izen-ematea, elkartean 19 eurotan.

Zizurkil. Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea: uztailak 6.

Zizurkil. Zizurkil Barrena beka antolatu du Udalak, herriko emakume baserriarrei buruzko diagnostikoa egiteko. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira (943-692495).



Berrobiko neskek irabazle, Arsenal Txapelketan

TOLOSALDEA ▶ Kirola gaztetxo askoren artean aisialdirako praktika egokia izaten da. Hala, azken asteetan gure eskualdeko herritako gaztetxoek Arsenal Txapelketa jokatu dute. Holako txapelketetan garrantzitsuenaren arteko ha-

rremanak sustatzea izaten da eta elkarrekin kirolean aritzea. Baina irabazleak ere izaten dira. Kasu honetan Berrobiko alebinek irabazi zuten Amezketako aurkakoan (3-1), Lizartzako bi lagun laguntzarekin —argazkian—. HITZA

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiako jubilatuen taberna eskualdeko Xegunda Iztueta tolosarraren margolan biziak daude ikusgai, asteartetik igandera bitarte. Orokorrean, paisaiak egiten ditu, eguzkiak zeruarekin nahastuz sortzen dituen kolore berezi eta ederrak islatuz.

Tolosa. Ekainaren 15etik uztailaren 7ra arte, Aranburu Jauregian, Antonio Maria Labaien Kultur Etxeko arte plastikoan lantegietako ikasleen lanen erakusketa ikusgai izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.

Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disk eskainiak...

18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).

20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.

21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Goñi Begue (Amezketeta).
Zorionak sorginbo! aitabko, amaboko eta familiaren partez.



URTE ASKOAN
Xabi Unanue Gil (Tolosa).
Zorionak ebekoaren partetik!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...